

LEHEN MAILAKO ARRETA ARRISKU BIZIAN

Garai aldrebes hauetan, askotan egon gara osasun-langileok guztion ahotan. Gehienetan, pandemian egindako lana goraiatzeko eta eskertzeko izan bada ere, ezin dugu ahaztu orain aste batzuk komunikabideren batek kaleratutako osasun-langileen soldaten gaineko informazioa. Badirudi horren asmoa gizarteari pribilegiatuak gabela helaraztea zela, baina dirusarien zifra horiek egiatik ezer gutxi zuten, jakina. Orain dela gutxi ere, Lehen Mailako Arretako langileak kritikatuak izan gara kontsulta telefonikoak baino ez ditugulako egiten, gure pazienteen kalterako, baina aurrez aurreko kontsultak bertan behera uztearena ez da gure erabakia izan, Osakidetzako agintariena baizik, konfinamenduaren goiburua “Geratu etxean” dela argudiatuz. Hori bai, egunero, eta atsedetik gabe, pazienteak telefonoz artatu eta haiek ikusi gabe erabaki zailak hartzeaz gain, gaixoak osasun zentroan edota haien etxeetan ikusi ditugu beharrezkoa izan dela iruditu zaigun guztietan. Eta hori gutxi balitz, txandak egin behar izan ditugu “osasun-zentro zikinetara” joateko, non Covid-19-aren infekzioa izateko sintoma susmagarriak dituzten pazienteak diagnostikatu eta tratatu behar izan ditugun, osasun-zentroan bertan edota haien etxeetan. Bitartean, gure eguneroko lan-karga jatorrizko osasun-zentroetan gainerako lankideek hartu behar izan dute haien gain. Adibide bat jartzearen, Leioako Osasun Zentroan orain aste batzuk lau langile joan ginen Areetako Osasun Zentrora “Covid” izeneko kontsulta egitera, eta lau pertsona horien falta ez da inola ere ordezkatu.

Osasun-langileak komunikabideetan aipatu edo txalotu dituzten gehienetan, jendeak Urgentzietako edota Zainketa Intentsiboetako Unitateetako profesionalak izan ditu buruan. Egia da Lehen Mailako Arretako langileen lana oso isila izan dela, oharkabea, agian, baina hantxe egon gara sintoma arinak zituzten pazienteak kontrolatzen, isolatzen eta aholkuak ematen, eta okerrera egiten zutenean ospitalera bidaltzeko erabakiak hartzen. Horren berri, haiek, gure pazienteek, baino ez dute izan. Lan isil baina jarraitu horrek deskonfinamenduaren eta normaltasun berriaren fase honetan ere darrai.

Deskonfinamenduaren sasoi honetan ikus-entzuleek berriro eduki dute Lehen Mailako Arretaren berri: fase batetik bestera pasatu ahal izateko derrigorrezkoa omen zen %10eko indartzea Lehen Mailako Arretan. %10eko indartzea?. Nola indartu pandemia baino lehen Osakidetzako gestio txarrak zeharo txikitu duen Lehen Mailako Arreta? Osakidetzako gestoreen obsesio patologikoa gastua kontrolatzea baino ez da izan, eta lortutako akordio gehienak ez dituzte bete. Orain urte batzuk, sendagile eta erizain bakoitzak artatu behar zituen pazienteen kopurua (kupoa) 1.400era murriztea lortu genuen, epe ertainera 1.200ekoak izateko itxaropenarekin, baina, gaur egun, 1.600 paziente pasatxo ditugu. Horretaz gain, laneko bajak edo oporraldiak ez ordezkatzeko joera sistematikoa da gurean, eta kasurik onenean, ordezkoren bat bidaliz gero, bi edo hiru kontsulta batera egiteko izan ohi da. Horixe da modako politika ezaguna: txapela batekin hiru buru estaltzearena. Horrek norberaren pazienteak artatzeaz gain falta diren lankideenak artatu beharra ekartzen du, jakina. Orain dela urte batzuk, krisi sasoiari, ez ordezkatzeko argudioa diruaren falta zen, baina orain politikoki zuzenagoa den azalpena aurkitu dute gure gestoreek: “ez dago ordezkorik”. Tamalez, hori kasu askotan egia izaten da, sendagile zein erizain asko, urtetan lan-baldintza oso prekarioetan ordezko bezala aritu eta gero, Osakidetzatik kanpo lan egitea erabaki baitute (mutuetan, klinika pribatuetan zein Europar Batasuneko bestelako herrialdeetan). Hala ere, nahiz eta administrazio-laguntzaileen kontratazio-zerrendetan langile faltarik ez egon (eta, beraz, “ez dago ordezkorik” argudioa lekuz kanpo egon), estamentu horretan ere joera inor gutxi ordezkatzeko izan ohi da. Eta hau guztia nahikoa ez balitz, esan behar dugu Osakidetzan langileok aspaldian ez dugula ganorazko etengabeko prestakuntzarik jasotzen; Covid-19-aren eta bere ondorioen gainean eman diguten informazio eta prestakuntza bakarria posta elektronikoz bidalitako hainbat protokolo izan dira. Hori bai, astero protokolo desberdin bat (askotan aste berean protokolo bat baino gehiago), eta haien artean zeharo kontrajarriak. Baina ez dute inoiz gure iritzia kontuan hartu, ezta gure kezak entzun ere egin. Ez gaituzte inoiz aintzat hartu.

Orain arte aipaturiko guztiagatik pasa den urteko udaberriari lanuzteak konbokatu genituen, baina tamalez, ordutik hona egoerak onera egin beharrean, txarrera egin du nabarmen. Izan ere, Osakidetzak badu bere “deskonfinamendu” plan propioa, Lehen Mailako Arretaren zeharo desegitea ekarriko duena, alegia. Eta horretan

Uribe eskualdeko gestoreak arituak dira. Zertan geratu da hainbeste aldiz aipaturiko Lehen Mailako Arretaren indartzea? Bada, hiru erizain gestore kontratatu dituzte kasu eta kontaktuen jarraipen telefonikoa egiteko Uribe eskualdean (30 Osakidetza osoan). Edozeinek asma dezake ze portzentaje den hori, baina ez da % 10ekoa, jakina. Eta postrerako, Uribe eskualdeko zentro gehienetan uda honetan sendagileentzako ordezkapenak 0 izango direla komunikatu digute, jadanik, baita administrari eta erizain ordezeko oso gutxi bidaliko dituztela ere. Hau dana ikusita, oso galdera erraza egin nahiko genieke kontseilariari eta Uribe ESko goi karguei: zer kontaktu diozue Madrilen Lehen Mailako Arretaren indartzearen gainean deskonfinamenduaren fase batetik bestera pasatzeko irizpideak ebaluatzen zituen komiteari?.

Bukatzeko, ez gara gehiegi luzatuko gure egunerokoan erabakiak hartzeko eskura ditugun proba diagnostikoen fidagarritasun eskasaz, ezta pandemiaren hasieran erabiltzen genituen babes-neurrien prekarietateaz ere. Inork ez dio bere buruari galdetu zergatik dugun osasun-langile kutsatuen kopururik handienetakoa European?

Ezin dugu gehiago. Oso nekatuta gaude, baina gizarteari esan nahi diogu oztopo hauen guztien gainetik gure jarrera eta borondate ona ez direla aldatuko, eta berriro ere, zuekin egingo dugula txalo. Horregatik, hainbeste txalotu gaituzuen zuei guztioi, hausnartzeko eskatzen dizuegu, hain preziatuak diren gure osasun publikoko zerbitzuak ez uzteko kalitateari erreparatu gabe buruan gastua murriztea baino ez duten horien eskuetan.

Sinatuta: Miren Eurne Ugarte

NAN 11929394F

Leioako Osasun Zentroko Lehen Mailako Arretako medikua

eta Uribe ESko beste 101 administrari eta osasun-langile

Izen-abizenak	NAN
MONICA PEREZ LUIS	16055159D
MAITE ALONSO CRUZ	14601297T
JUAN JOSE IGLESIAS LOSADA	22703650M
NAIA AZKARATE ESTEVEZ	44978280D
MAR BARANDA MUÑOZ	22732161L
AGURTZANE URIARTE VIDAURRAZAGA	30570749T
GARAZI SALBIDEGOITIA ORMAZA	16069784T
VIRGINIA CANALES ARRASATE	45679351V
ANA CARMEN PEREZ CADIÑANOS	11914524H
JONE AMESTI GALLASTEGUI	78926811B
MAGDALENA CALDERON CASTILLO	16043016X
MONICA ASENSIO PUERTA	30689477W
M ^a ANGELES BARTOLOMESANZ MARTIN	14249403Y
CARLOS BRUZOS VALIN	45673529Z
ANA ISABEL LOPEZ BREGON	30591929C
BEGOÑA CATANIA AGÜERO	30616041M
IRUNE ISASI CASTREJANA	16080265E
TERESA AYARZA GONZALEZ DEL TANAGO	16085811W
MIKEL HERRERO AMESTI	30583601H
BEGOÑA GERGUE LOPEZ	14250115M
MYRIAM ALEGRIA GORICELAYA	30679207J
MARTA BARRENA EZKURRA	30558112J

MARCOS PEREDA BARROETA	16059344P
LEIRE URRUTIA RODRIGUEZ	78938114K
SAIOA UNANUE ISASI	79124555R
ALBERTO ORTEGA SEDANO	24404063M
LUCIA IRASTORZA	14906000M
IZASKUN URIBARRI ALVAREZ	30582504W
MONICA PRIETO ECHEBARRIA	11920617Q
NORA CABEZON PEREZ	16060940V
IRATXE VERDE BALLESTEROS	14605474Z
IDOIA ORIBE MUGURUZA	30552257T
ANA ARETXAGA CAÑADA	14609265X
MILAGROSA DE LA FUENTE DE LA PRIETA	16037743G
ESTIBALIZ ECHEVARRIA GALLASTEGUI	30654419L
FERNANDO ARTEAGA PEREZ	11931583B
CARMEN VELEZ FERNANDEZ	14585814L
ALEJANDRO ZABALA ALARCIA	16032318F
MARIA JOSEFA LOPEZ SAIZ	14701628H
EVA VILLARO CAMPOS	16061508X
JUAN JOSE GONZALEZ VILLANUEVA	30585625H
ESTIBALIZ AHEDO	16057667X
NAGORE ARCE ARANA	16073803T
RONALD RECOPACHI GARCIA	79421837P
MARIA JESUS TORRES ROJO	22737055Z
MARIA JESUS LOBO DELGADO	22712928Z
DIANA GONZALEZ FIDALGO	16038310L
Mª ANGELES GONZALEZ URKIJO	20168986X
YOLANDA CUELLAR IRAZABAL	22718782A
FERNANDO MONASTERIO VICENTE	72388167Z
YOLANDA CALVO ALESANCO	16039177N
ESTHER BARBERO BLANCO	14588718
IDOIA CALZADA CASTRO	45824821N
IGNACIO GOROSTIAGA RUA	14247028T
NEREA SAN MIGUEL LARREA	22731850F
Mª ARANZAZU GANGOITI BENGOTXEA	72246260V
SOL DIAZ GUARDAMINO GIL	14909197E
JOSUNE BUJAN GARAI	22722658S
AINHOA RUIZ TEMIÑO	78946061X
CARMEN SAN ROMAN	72022610L
ANA MARIA RIO BARTOLOME	22750761N
CARMEN IRIGARAY LOREA	78862172W
LEIRE MARTIJA LARRUCEA	30597344F
LURDES ALONSO MENDEZ	30627026L
SUSANA MALDONADO DE LA TORRE	22753915S
AMAIA ERKOREKA IROSTA	16039525S
VICTORIA GONZALEZ CARRASCO	20178391P
Mª ELVIRA GONZALEZ CABANA	11918796N
IRAIDE ZALBIDE PEREZ	16063010V
MARIA DEL ROSARIO ECHEVARRIA LOPEZ	14559330P
MARTA LOPEZ DE DIAGO	30692107X
JUAN RAMON ASTORKIZA BASAÑEZ	16026479X
ANA DIEZ GONZALEZ	16060851C
GONZALO GOMEZ DE ITURRIAGA	22715689S
BEGOÑA ETXEGUREN SOLATXI	14576731H

NIEVES LOPEZ ORTIZ	14558500
MAR BILBAO GORJON	14708999Q
ANA ZORRILLA ARTERO	16032039G
CARLOS A. LEJONAGOITIA	72401190G
CRISTINA PEREZ MANSO	71292374X
ICIAR OCHOA DE RETANA BASTERRA	38823642X
ARANTXA MUÑO A ABEYTUA	33519713L
IRATXE KORTA RAMON	16062868J
CRISTIAN AMEZAGA ASENSIO	14918063X
ALEXANDRA FABREGAT ROSSELL	38860497L
LUIS ANGEL ANGON PURAS	50466355P
BEATRIZ CASADO BAIDES	44763275P
MIRIAM SAINZ GUNTIÑAS	16089242Y
COVADONGA RAMILA TORRES	14244792H
JAVIER RODRIGUEZ MURUA	14952599T
ROSA MARIA IRURETA CAMPOS	16050831H
CARMEN MORO ALONSO	1461205H
BEGOÑA CORBACHO BONILLA	20181996W
AMAIA MARTIN SANTIDRIAN	14606768C
MARIA JOSE ALONSO MIGUEZ	30556099R
LORETO PALACIOS ELENA	22712744Z
IBONE LABAYRU ERKIAGA	72584688
AINZANE GURRUTXAGA ARRUTI	16029995E
ANE ACAITURRI ARCE	79007497J
JORGE PABLO MATEU ALONSO	78874683R
ITXASO AREVALO	30584741D

